



EUSKARA

LANTOKIETAN EUSKARAZ LAN EGITEA




ZERGATIK?

Gero eta nabarmenagoa da arlo sozioekonomikoan linguistikoki eragiteko beharra, izan ere, asko eta asko dira ikasketak euskaraz egin bai, baina lanean hasi eta laneko dinamika linguistikoari jarraiki, gaztelaniara lerratzen diren gazteak. Hori ekiditeko, ezinbestekoa da euskaraz lan egin ahal izateko baldintzak sortzea eta esparru sozioekonomikoak ere bere egitea hizkuntzaren aldagaia.

Eusko Jaurlaritza arlo sozioekonomikoan eragiteko plan bat osatzen ari da eta lan ildo hori osatzera dator proiektu hau. Proiektu hau langile, arduradun eta zuzendariengan eragiteko baliatu daiteke eta baita Eusle metodologiaren aplikazioa sustatzeko ere. Eusle metodologiak hizkuntza ohituretan eragitea du helburu (kasu honetan lan esparruan).

NORK?

Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak



ZERTARAKO?

Esparru sozioekonomikoan euskaraz lan egiteko baldintzak sortzeaz batera, hizkuntza ohituretan eragitea da helburua. Beste hitz batzuetan esanda, langile, arduradun eta zuzendarien inplikazioa lortzea eta langileek (sartu berriak barne) euskaraz lan egin ahal izateko baldintzak eta motibazioa lortzea.

NOLA?

Berrikuntza, euskara, hizkuntzen kudeaketa eta plangintza linguistikoetan dabiltzan erakundeek Eusle edota baliokidea izan daitekeen metodologia baten zabalkundea egitea proposatzen da.

Zabalkunde hori egiteko kontratatutako erakundeak landa lana egingo du, metodologia non aplika daitekeen erabaki eta esku-hartzeen diseinua, aplikazioa eta jarraipena egin.




NON?

Bertakoa, Eskualdekoa, Lurraldekoa

NOIZ?

2022/10/10



100.000€